

Altza

Molinaoko auzotarren aldarrikapenak

Artxipi pasealekua txukuntzea, Luzuriaga lantegia zena botatzea eta Molinao bidea zaharberritzea. Horiexek dira Udalak, auzotarren proposamenen ildotik, Molinaon egingo dituen lanak. Autobusa jartzea ere proposatu zuten auzotarrek, baina eskaerak ez du aurrera egin.

Eskalantegi kalea Donostia eta Pasai Antxo arteko muga da. Kalearen alde bat Donostiari dagokio eta bestea, Pasaiari. Donostiako zatiaren bukaeran, Molinao auzoa dago. Bertan bizi diren zenbait lagunek auzo elkartearen eratu zuten 2003an. "Aurretik nork bere kabuz egiten zituen eskaerak, eta Udalak ez zigun kasurik egiten", dio elkartekide Izaskun Barbierrek.

Hiru proposamen onartu dira

luz, auzotarrek zenbait proposamen aurkeztu zizkioten Udalari aurrekontuan sar zitzañ. Batetik, Artxipi bidea txukuntzeko eskatu zuten, "Molinao eta Pasai Antxokoentzat, berdegune bakarria horixe delako". Bigarren proposamena Luzuriaga lantegia zena lehenbailehen lurrera botatzea izan zen. Hirugarrenik, Molinao bidea zaharberritzeko eskaera egin zuten. Auzotarrantzat funtsezkoa da Molinao bidean Udalak esku hartzea: "Errepidea Altzaraino iristen da, Arri Berriraino, hain zuzen. Bi norabide ditu, baina ez dago bi autorentzako nahikoa toki. Errepidea duela


50 bat urte egin zuten, eta orduz geroztik, ez dituzte errepede azpiko tutuak aldatu. Bestalde, bidean argi gutxi dago, eta neguan zorua irris-takor samar egoten denez, aldatzeko etxeetan bizi diren adinduek ezin dute etxetik atera". Era berean, Molinao bidean, lurazpian, hiri-gasa jartzea nahi dute auzotarrek. "Aspaldi hasi ginen Donosti-Gas erakundeari hiri-gasa jarrezaten eskatzen. Baina orain arte ezezkoa eman digute. Donosti Gas-ekoek oso gutxi ga-

rela diote, eta, horregatik, ez dela errentagarria instalazioa egitea. Lurazpiko tutuak aldatzen badituzte, hiri-gasa jartzea ere espero dezagun!", dio Barbierrek. Udalak eskaera hauek onartu ditu, baina oraindik ez dago lan hauek hasteko data zehatzik.

Autobusik ez

Molinaoko auzo elkarteak autobusa jartzeko proposamena ere aurkeztu zuen, baina Udalak, oraingoz behintzat, ez du inguru horretan autobusa jar-

tzeko asmorik. Hala ere, auzotarrek ez dute amore eman nahi: "Molinao-Arri Berri bidea egingo lukeen autobus txikia jartzea nahi dugu. Autorik ez duten auzotarrek hamar minutu behar izaten dituzte Pasai Antxoko autobusera edo Eusko Tren-era joateko. Batzuetan, autoa dugunok autobusa edo tren geltokiraino lagundu behar izaten ditugu".



Auzotarrek Molinao bidea zaharberritzeko egindako eskaera ere onartu du Udalak.

Sanmartzialei agur

Altzako jaiak bukatzeaz aurreratu. Dena dela, azken txanpan, izango dugu non gozatu. Ostiralean, Santa Ixabel eguna ospatuko da; goizean zein arratsaldean, idi-dema eta bertso saioak izango ditugu, besteak beste. Larunbatean, Ana Pozasek urte hasieran kaleratutako diskoari eta bere webguneari buruz hitz egingo du eDonostia.net-en, 20:00etan. Larunbaterako, Altzako gazteek jokoak, tortilla lehiaketa eta kinitoa antolatuko dituzte, 15:30etik aurrera. Gauean, Sutura eta Germen taldeek kontzertua emango dute.


relojberri
www.relojberri.com
 Bulebarra 20 (Parte Zaharra) 20003 Donostia Tel.: 943 429709

MAGNETISTA NATUROPATA
 Tel.: 943 623055 - San Marzial 7 - IRUN

ERREKUPERAZIOAK	IKUSMENA	GIHARRETAKO
- Diabetea	- Begi nagiak	- Erreabilitazioa
- Larruzaleko alergiak	- Miopia	- Artrosia
- Asma	- Hipermetropia	- Erreuma-artritisia
- Buruko mina	- Estrabismoa	- Lunbaldiak
- Prostatita	- Begi-lausoak	- Lepoko mina
- Birusak		
- Oinetako izerdia		

ORDUTEGIA
 Goizak: 9:00-14:00
 Arratsaldeak: 17:00-21:00
 Aurretik ordutia hartu

Zentru ez sanitarioa